



IBILIAZ EZAGUTU: ARABAKO IPARRALDEA EZAGUTZEN



Urriaren 19an, Urduñako mendatea – Lendoño Goikoa (13,8 km)

Zailtasuna: Handia


Etapa hau egiteko, kontuan hartuko da eguraldia. Horren arabera, hautazko ibilbidea izango da. Burgosen eta Euskal Herriaren arteko mugan otsoak eta haize boladak dira nagusi. Inguru hauek eskaintzen dituzten ikuspegiak, hala ere, ez dira nolanhikoak. Aiala eskualdea izango dugu oinen azpian.



Urriaren 26an, Altubeko basoa – Goiutria (Gujuli) (9 km)

Zailtasuna: Erraza


Altubeko basoa dugu Europako basorik handienetakoa, eta bertako haritz eta pago artean galduko gara, hostoen iluntasunean murgilduz. Ur-jauziak ikusi eta errekatxoak igaroko ditugu. Basajaunen baimenarekin, Goiuriko zabalgunetara iritsiko gara.



Azaroaren 9an: Ubidea - Legutio (10 km)

Zailtasuna: Erraza

Hirugarren ibilbide hau Bizkaian hasi eta Arabako Legutioan amaituko dugu. Harizti ederrak zeharkatu ondoren, Urrunagako padurara iritsiko gara. Bertan migrazioan dauden hegaztiak ikusteko aukera izango dugu.



Azaroaren 16an: Legutio - Ulibarri-Ganboa (11km)

Zailtasuna: Erraza

Arabako inguru honek daukan altxorretariko ba Ulibarri-Ganboa urtegia da. Legutiotik hasita bertaratuko gara, eta gure azken ibilaldi honetan ez dira hariztiak eta pagadi ederrak faltako.

Informazioa eta testuak: Jokin Berrio

ARABAKO IPARRALDEA EZAGUTUZ



Bizkaiko hegoaldea bere osotasun guztian Arabak betetzen du. Arabak, Zazpigarren Alabak, berezitasun eta alde handiak dauzka eskualdearen arabera. Guk iparraldea ezagutu nahi dugu oraingoan, Gorbeia aldea saihestuz. Gurari hori betetzeko lau ibilbide antolatu ditugu.

Gidari euskaldunak bidelagun izango ditugun lau ibilaldiotan inguruko ondarearen aniztasunaz gozatu ahal izango gara.

Autobus zerbitzua izango da, Gudari kaleko autobus geltokitik, ibilbidearen hasiera puntuetara mugitu eta amaiera puntuetatik etortzeko.

Irteera ordua, goizeko 8:30
Gudari kaleko autobus geltokia

Álava cubre totalmente el sur de Bizkaia. Araba, Zazpigarren Alaba, tierras de grandes contrastes. En esta ocasión vamos a conocer el norte de la provincia, dejando a una lado la zona del Gorbea. Y hemos organizado cuatro itinerarios para satisfacer ese deseo. *En estas cuatro excursiones, acompañados de guías euskaldunes, contaremos con servicio de autobús para los desplazamientos a los lugares de comienzo o finalización de las etapas.*

Hora de salida: 8:30

Parada de autobús de la calle Gudari

Izen-abizenak:.....

Adina: Telefonoa:..... e-posta:.....

Zein etapa egin nahi duzu?

Urriaren 19an: Urduñako mendatea-Lendoño

Urriaren 26an: Altube - Goiuria

Azaroaren 9an: Ubidea - Legutio

Azaroaren 16an: Legutio - Ulibarri-Ganbora

Izena-emateko: Zelaieta zentroko erregistroan.

Ibilaldi 1 edo 2: 7 €

3 edo 4 ibilaldi: 12 €